

Elgoibar 1364. zenb.  
XXXII. urtea / 2025/03/28



# Aireko akrobatak



# Euskararen Osasuna Osakidetzan



## Garbiñe Garai eta Ana Bereziartua\*

Zer dator Osakidetzako Euskara Planean?

Zein da Mendakero ospitaleko eta Elgoibarko anbulatorioko egoera?

Zer lortu da? Zer dago hobetu beharrean?

Zein dira Euskara Plana errealitatera eramateko dauden zailtasunak?

Zein dira zerbitzua euskaraz jaso nahi duten herritarrek izaten dituzten trabak?

**Apirilak 3, osteguna - 18:30 - Aita Agirre kulturgunean**

**\*Garbiñe Garai:**

Euskararen normalkutzarako teknikaria da  
Debabarreneko ESIIn (Osakidetza)

**\*Ana Bereziartua:**

Elgoibarko osasun etxeko erizaina.



DEBABARENKO  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
DEBABARRENA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURAREN NEKUNTZA  
POLITIKA SAIA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen iritzi eta gutunen ataletan adierazitako erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Ane Astiazaran, Nahia Aizpurua, Ane Kortaberria, Leire Kerexeta, Iزارo Etxegibel, Asier Guisasola, Iker Lauzirika, Arkaitz Uranga, Irene Macazaga, Jose Ramon Cabrera, Nagore Cancio, Saioa Rodriguez, Paula Heras, Angel Ugarteburu, Andoni Segundo, Angel Mari Tobajas. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[x.com/barreneus](https://x.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)



[mastodon.eus/@barren@tkm.eus](https://mastodon.eus/@barren@tkm.eus)

Izaro Etxegibel Soraluze

Euskara teknikaria

## Puntak eta orpoak



**"Mahai gainean,  
Danimarkako  
gaileta-kaxa borobila"**

Lehorategian esekitzen ditu arropak udaberrian. Eguzkiak jotzen du etxearen albo horretan, eta, berehala lehortzen dira. Neguan ez, ainubetan geratzen da baratzearen aldamenean aitzak aspaldi inprobisatutako arropa zabaltzeko soka. Txukundua du txokoa; hortentsiak hazten hasiak dira, eta mahai bat eta aulkiak, duela gutxi berriztuak, urteetan ganbaran herdoiltzen egon ostean, granate kolorez margotuta daude orain. Bertan eserita gosaldu ahalko duenaren ideak poztzen du, eta bisitan datozenekin kafea hartzeak.

Arropak garbigailutik atera, eta, banan-banan, sokaren gainean eseki ditu. Goiz den arren, eguzkiak jotzen dio ilean, eta Marseillako xaboiaren usainak indartuta, hego haize atsegina sentitu du aurpegian. Izarak lehenengo, gauza handiak atzean, amamak agindu bezala. *Vichy*-koadro beltzdun mahai-zapia. Toallak, gero. Gogokoenak estanpatuak ditu, marrazkidun toallak, nahiz eta zaila izaten den halakoak dendetan topatzea. Arrosak dira, lore zuri handi batzuekin. Etxean egoteko mantala, ondoren, loreduna, *Liberty London* etiketarekin. Aurrean, lehenengo soka, galtzerdiak.

Etxeko galtzerdi guztiak garbitzen ditu, noizean behin; tiraderan gordeta hezetasun usaina hartzen dutela iruditzen zaio. Eskuz eginak ditu, koloretakoak, belauetarainokoak asko.

Lehortu dira arropak, konturatzerako. Jaso ditu, tolestu eta saski batean sartu ditu denak.

Eguzkitan, forjazko aulki granatean patxadaz eserita, zulatutako galtzerdiak josten hasi da. Puntak eta orpoak. Mahai gainean, Danimarkako gaileta-kaxa borobila. Aspalditik gordeta ditu hari berdea, urdina, gorria, horia, grisa, laranja, beltza, zuria, eta, imajinatu daitezkeen kolore guztietakoak; artaziak; jostorrazak eta sekula erabili gabeko titarea.

Berotzen hasia da eguzkia. Soinean daramatzen arropak erantzi ditu, eta puntada batzuk eman dizkio bihotzari ere.



## Milagros Sarasua Larrinaga

2025eko martxoaren 12an hil zen, 94 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

**Maitasunez beti gure bihotzetan.**

Etxekoak



## Mari Carmen Muguerza San Martin

2025eko martxoaren 20an hil zen, 81 urte zituela  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Zure ondoan bizitza pozgarria izan da.  
Ez zaitugu ahaztuko.**



## Victoria Sanchez Martin

2025eko martxoaren 22an hil zen, 86 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

San Lazaro egoitzako langileei ere, mila esker  
amarekiko izan duzuen maitasun eta zaintzarengatik.

**Isiltasunean izan dira  
zure lana eta bizitza,  
beti izango zara  
gure oroimenean eta bihotzean.**

Etxekoak



**Eskertzak eta urteurrenak**  
Barren astekarian eta [barren.eus](http://barren.eus) webgunean.

 **943 743 704 / 943 744 112**  
 **688 769 657**  
 [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
 **Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk**



barren



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### Melitongo zubian putzua sortzen da euria egiten duenean:

"Urtebete inguru daramagu horrela, eta kexa publikatu arren, oraindik inor ez da etorri hau konpontzera. Eskertuko genuke gure eskaera aintzat hartzea".



### Txalo bat Inazio Bereziartua Musika eta dantza eskolari, joan zen asteko emanaldiagatik:

"Mila esker musika eta dantza eskolako arduradunei eta baita joan zen asteko dantza jaialdian parte hartu zuten dantzari. Oso polita izan zen. Segi horrela".



### Txalo bat Azkarateko errepide zaharra asfaltatzeagatik:

"Azkarateko errepide zaharra asfaltatzeko lanak hasi dituzte, eta eskerrak eman nahi dizkiet arduradunei. Bide hori oso arriskutsu egon da denbora luzean eta orain hobeto dago". Udaletik azaldu dute lan hauen kostua eta egin beharreko aktuzioak dimentsio handikoak direla eta obra lizitazioa aterako dutela. Baina bitartean, zuloak estali eta bertatik egunero dabiltzanen segurtasuna hobetzeko asmotan, behin behineko "partxeo" lan bat egin dutela: "Aurten errepidearen konponketa nagusia burututa geratuko da, erabilera egokia bermatuko delarik. Errepide guztiaren azken asfaltatze lanak aurtengo urte bukaeran edo datorren urte hasieran egitea aurreikusten dira, eguraldiaren arabera. Behin azken lan hauek bu-



rututa, errepidea guztiz berrituta geratuko da". Bide hau konpontzeko Elgoibarko Udala eta Foru Aldundia elkarlanean ari direla zehaztu dute.



## Ba al daukazu hizkuntza-estresik?

Euskaldunok, batzuetan, euskaraz hitz egiteari uko egiten diogu parekoak euskara ulertuko duen zalantzagatik, erantzun txar bat jasotzeko beldurragatik, edota euskaraz azaldutakoa gazteleraz ez errepikatzeagatik. Halere, euskaldunak gara, euskaraz egin nahi izaten dugu, eta, sarritan, deseroso edo gaizki sentitzen gara gazteleraz egiten dugulako.

Euskaldun askok horrela bizi dugu bi hizkuntzen artean kokatu ezina. **Hizkuntza-estresa deitzen zaio horri.** Zure hizkuntza-estresa zenbatekoa den jakin nahi baduzu, erantzun galderei.

*\* Galdetegia Tolosaldeko Galtzaundi euskara-elkartekok laga digute.*

EGOERAK	Egia	Gezurra
Ezagutzen ez dudan pertsona batekin gazteleraz hasi, eta, bat-batean, euskaraz erantzuten badit, erru sentazioa izaten dut.	1	0
Euskaraz dakien jendea elkarrekin gazteleraz sumatzen dudanean haserre jartzen naiz.	3	0
Pertsona arrazializatu bat ikusten dudanean automatikoki gazteleraz egin ohi diot.	1	0
Dendaren batera joatean gazteleraz artatzen banaute, edota "kaixo" edo "agur" ez esateak haserretu egiten nau.	3	0
Sarritan esaten didate hizkuntzaren gaiarekin segituan haserretzen naizela.	3	0
Beste pertsonari euskaraz hitz egitea kostatzen zaiola ikusten baldin badut, oso urduri jartzen naiz.	2	0
Ezezagun batek zerbait lehenengoan ez badit ulertu, pentsatzen dut ez duela euskaraz ulertzen, eta segituan gaztelerara pasatzen naiz.	2	0
Elkarrizketa batean oraintxe euskaraz eta oraintxe gazteleraz ari baldin badira, etengabe hizkuntza batetik bestera aldatzen, oso deseroso sentitzen naiz.	2	0
Aurrean dudan pertsonak euskaraz dakiela baldin badakit, berak euskaraz egiten ez badu ere, nik euskaraz egingo diot, baina ez naiz eroso sentituko.	2	0
Gazteleraz hitz egin behar dudala dakidanean, urduri jartzen naiz alde zuzenetik.	3	0

*Oharra: EGIA erantzun duzun laukitxoetan azaltzen diren zenbakiak batuta jakingo duzu zure hizkuntza-estresa zenbatekoa den.*

**13tik gora:** hizkuntza-estresa handia.

**9-12:** hizkuntza-estresa ertaina.

**5-8:** hizkuntza-estresa txikia.

**0-4:** ez daukazu hizkuntza-estresik.

Adin txikiko pertsona askok harrera-familia bat behar dute. Eta familia askok erantzuna eman diezaiokete egoera horri. Baina ez dute deitzen uste dutelako ez datozela bat perfilarekin. Horregatik, deitu aurretik zalantzak argitzen dituen lehen telefono zenbakia sortu dugu. Zure familia 6, 8, 2, 5, 4 edo 3 kidekoa izatea berdin duelako. Garrantzitsuena delako, bakarrik haziko den adin txikiorik ez egotea. Deitu ezazu.



# 682554433



 **GIPUZKOA**  
Foru Aldundia

LABORAL  -k eta **AMA**  -k aurkezten dute:



## BABESLEAK

Partekatutako balioetan oinarritutako harremana.

**LABORAL Kutxan eta AMA Tolosan** bat gatz gure lurra eta nortasuna babesteko konpromisoarekin.



Eta, espiritu horrek bultzatuta, **oso zozketa berezia** egingo dugu:

AMA Tolosako **4 esperientzia gastronomiko** eta **2 laguntzako gau bateko egonaldia nekazaritza-turismoko establezimendu batean\***.



**HARTU PARTE HEMEN:**

[laboralkutxa.com/xeu/babesleak-ama-tolosa](http://laboralkutxa.com/xeu/babesleak-ama-tolosa)

\*LABORAL Kutxaren bezero diren 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiak hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2025eko martxoaren 18tik apirilaren 20ra bitartean mezu elektronikoko galderei erantzuten badiete. Zozketa. AMA Tolosa jatebako esperientzia gastronomikoen 4 sorta, 2 laguntzari bakoitza, eta gosaria barne duen 2 laguntzako ostatu-gau bat, KORTETA AGROTURISMOA establezimenduan, 2025eko maiatzaren 10erako. AMAko lantegia maiatzaren 10eko arratsaldean izango da, 18:30 aldera, eta, ondoren, afaria zerbitzatzeko da. Joan-etorriak ez dira sartzen. Zozketaren data: 2025eko apirilaren 22a. Ikusi zozketaren oinarriak [laboralkutxa.eus](http://laboralkutxa.eus) webgunean.

  
**LABORAL**  
kutxa

**Bada beste modu bat**

## Errezabal etxea itxi dute, joan zen asteko sutearen ostean



**P**ilar ikastetxea zegoen orubearen gaineko partean dagoen Errezabal etxeak su hartu zuen joan zen asteko eguenean. 21:40ak aldera piztu zen sua. Hego haize indartsua zebilen une hartan, eta suhiltzaileen lana beharrezkoa

izan zen sua itzaltzeko. Etxea okupek hartuta zuten azaroz geroztik, eta etxe jabeak argitu du salaketa jarrita zuela, etxeak ez zeukalako bertan bizitzeko baimenik. Sutearen ondorengo kalteak ikusita, etxea itxi egin dute aste honetan.

### Orain arte pintxo lehiaketa izan dena pintxo dastaketa izango da Mendaron

Pintxo lehiaketa antolatu izan du urtero Mendaroko Udalak, baina parte-hartzaileak gutxitu dira, eta pintxo lehiaketaren ordeztu dastaketa izango da aurtengoa. Apirilaren 12an eta 13an egingo dute, eta egun horretarako moka-

du bereziak prestatuko dituzte herriko tabernek, prezio apalagoan salduko dituztenak. Apirilaren 12ko iluntzea girotzeko, gainera, La Tuna banda lotu du Udalak. 19:00etan hasiko dute auzorik auzoko kalejira La Tunakoek.

### Udaldirako hezitzaileak behar ditu Elgoibarko Izarrak

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea elkarteak udaldiko eskaintzan lan egiteko hezitzaileak behar ditu. Apirilaren 13ra arte egongo da izena emateko aukera, eta bi baldintza bete beharko dituzte aurkezten direnek: batetik, hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea, eta bestetik, ahozko euskara maila handia izatea. Baloratuko direnak, berriz, honako hauek izango dira: Aisialdian lan-eskarmentua izatea; Elgoibarkoa izatea; Haur Hezkuntza eta Hezkuntza Premia Behar Berzietako ikasketak nahiz esperientzia izatea; es-

pezializazio ikastaroak egin izana, eta herrigintzan jardun izana.

Hautagaiak proba bat egin beharko dute eta hautaketa-sistemaren irizpideen araberako meritua ere baloratuko zaizkie. Apirilaren 28an eta 29an egingo dizkiete elkarrizketak aurkezten direnei eta hautatuak direnek oinarritzko preskakuntzan hartu beharko dute parte maiatzaren 24an, 09:30etik 18:30era. [Elgoibarkoizarra.eus](http://Elgoibarkoizarra.eus) webgunean utzi behar dira curriculumak. Informazio gehiago: [kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus](mailto:kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus) edo 943 741 626 / 643 499 169.



## Sextortsio delitu bat leporatuta adingabe bat atxilotu dute Elgoibarren

**E**rtzaintzak 17 urteko adingabea atxilotu du aste honetan Elgoibarren, sextortsio-delitu bat leporatuta. Biktimak kontaktu-plataforma baten bidez izan zuen harremana estortsiogilearekin, eta harekin argazki intimoak trukatu ondoren, "koakzioak jasotzen hasi zen". Delitugileak bi mila euro lortu nahi zituen biktimak bidalitako irudi konprometigarri batzuk sare sozialen bidez ez zabaltzearen truke. Koakzioa jasan zuen pertsonak salaketa jarri eta Ertzaintzari jakinarazi zion pertsona batek xantaia egin nahi ziola. Biktimaren dirua hitzartutako lekuan lehen aldiz jaso behar zuen unean atxilotu ahal izan zuten estortsiogilea.

Segurtasun Sailak gomendatzen du horrelako kasuetan, ordaindu aurretik salaketa jartzea, lehen ordainketa egin ondoren xantaiak bere horretan jarraituko baitu gehienetan. Gainera, gomendatzen du irudi intimoak ez bidaltzea inori, ezta lagunei edo ezagunei ere, sare sozialen bidez.

### Elgoibarko anbulatorioa asteko zazpi egunetan eta 24 orduz zabaltzeko aldarria



24/7 plataformak Elgoibarko anbulatorioko zerbitzua zabaltzeko eskatzen jarraitzen du. Eguaztenean batu ziren anbulatorio aurrean, osasungintza publikoaren murrizketen kontra, eta anbulatorioko larrialdi zerbitzu iraunkorra berreskuratzeko eskatzeko. Azken batean, as-telehenetik domekara eta eguneko 24 orduetan anbulatorioa zabaltzeko eskatu dute.

## Gaur amaituko da 'Zaporeak' egitasmoaren janari bilketa



*Zaporeak* egitasmoaren barruan janari bilketa egin dute aste honetan Debabarrenean, eta gaur izango da jakiak emateko azken eguna: Elgoibarren, pardina dilistak; Elgoibarren, garbantz pedrosillanoa; Deban, Ermuan eta Sorluzen, bonba-arroza; Mallabian eta Mendaron, hodi erako makarroiak; eta Mutrikun, arraina kontserban. Elgoibarri dagokionez, Merkatu Plazan jasoko dituzte elikagaiak, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Era berean, Santa Anako Eroski supermerkatuan, Marrubi dendan (Antonio Arrillaga kalean) eta Txillarre Eko-dendan ere jasoko dituzte garbantzua. Institutuko eta Elgoibar Ikastolako ikasleek gelara ere eraman ahal izango dituzte elikagaiak. Mendaron, bestalde, Lagun Betikoak tabernan, Rotetan, Sorianean eta Coviran janari denda jasoko dituzte makarroiak. Aurten 50.000 kilo batzeko erronka jarri dute, Greziako Lesboseko kanpalekuan dau den errefuxiatuei jaten emateko.

Bestalde, Zaporeak ekimenaren aldeko errifak salgai daude Elgoibarko hainbat denda eta tabernatan: Darama denda-tailerra, Marrubi fruta-denda, Armueta, Alire estetika, Txillarre eta Tantaka taberna. Errifa bakoitzak euro bateko prezioa du eta zozketa bihar egingo dute, Ermuan, *Tupper Solidarioa* ekimenaren barruan. Debabarreneko sukaldariek janaria prestatzen emango dute goiza, plazan bertan, eta ondoren tuperrak (erdia lentejak bakailaoarekin, beste erdia arroza Lumagorrirekin eta fruta pieza bat) 5 euroan salduko dituzte, 14:00etatik 15:00etara.



## PAPEREZKO HEGOAK

**Irakurketa gauza indibiduala den arren, kultura gauza konpartitua da, eta haurrentzako irakurketa klubetan saiatzen dira hori erakusten, gozamenetik beti. Hilean behin elkartzen dira Elgoibarren eta Mendaron irakurketa klubetakoak, Peru Magdalena idazlearekin batean eta Mireia Delgado bitartekari literarioarekin bestean. Gaur, Elgoibarko taldera batu gara, LH6ko zortzi bat ikaslerekin batera.**

✍️ / 🗣️ Ainara Argoitia

**I**rakurtzea lagungarria da geure burua ez ezik mundua ere ezagutzeko, eta irakurritakoa beste batzuekin partekatzeak laguntzen du besteen tokian jartzen eta gureak ez diren ikuspuntuetara hurbiltzen. Baina gehiago ere bada. Paperezko hegoak zabaldu eta hegan egitea ere bada irakurritakoaz taldean berba egitea, eta hala ari da gaur LH6ko ikasle talde bat Elgoibarko Gotzon Garate udal liburutegian, Peru Magdalena idazlearekin (Berriz, 1980). Borobilean eseri dira denak, gidaria barne, Joxan Ormazabalaren *Makilakixki* liburuaren ale bana eskuan hartuta. Horixe izan dute hilabete honetako irakurgaia, eta haren bueltan ariko dira gaur, ordubetez. Solasaldiari ekin aurretik, gaur taldean landuko duten ipuina Joxe Miguel Barandiaran antropologo, arkeologo, etnografo eta apaiz euskaldunak jasoa dela zehaztu dio Magdalenak aurrean duen ipurloka kuadrillari, baina ez die Barandiaranen

izenak askorik esan haiei. Bai, ordea, liburuak. Hasi nahi dute.

"Zein da zuen ustez morroi-lanengatik liburuko hiru anaiak jaso dituzten oparietatik onena?", galdetu die Magdalenak, eta hasi dira banaka-banaka, txandaren zain egoteko baino urduriago. "Mahaia, 'presta ezaidak jana!' esan eta nahi beste jateko ematen duelako eta, nahi izanez gero, saldu ere egin ahal izango dugulako jana, dio Markek. "Nola ba!", aldamenetik, Julenek. "Astoa; astoa da oparirik onena, urrea ematen duelako, eta urreak baino gehiago ezerk ez duelako balio". "Ez, ez, mahaia. Jan gabe ezin delako bizi eta gainera mahaia balio duelako beste gauza askotarako, adibidez lurrikaretatik babesteko", Naiak. Pentsakor jarri du Ines, baina ezetz dio gero: "Eta astoa, zer? Astoak balio du garraiatzeko eta, urrea ematen badu, joan gaitzke noranahi haren gainean".

Eta Markek ondotik berriro. "Eta urrea saldu ezin baduzu? Non saltzen da urrea?". Arrazoi-zea da kontua, lagunei entzun eta zalantzari ate bat zabaltzea; irudimenari libre laga eta erantzun borobilik ez dagoela jabetzea. Inork ez du makila aukeratu, hala ere. Inork ez du begi onez ikusi makilari *Makilaxki* esan eta makilkadaka hastea.

Bigarren galdera bat egin die Magdalenak, ideia zurrumbilo hartatik irten eta beste baten sartzeko. "Eta, nor eman dio bukaera on bat istorioari?". Ez dute zalantzarik: anaia txikiak. "Besteak baino argiagoa ote da, ba, gazteena?". Ez dago erantzun bat. "Posible al da hori? Ez al da izango opari hobea jaso duelako gazteenak morroi-lanengatik?" Eta zabaldu dute justizia sozialaren meloia umeek. Litekeena dela Julenek eta Naiak. Bizi izan dutela antzeko egoerarik. "Etxean bi ume garenean, errietak beti dira nagusiarentzat, edo bestela, bientzat. Sekula ez txikiarentzat bakarrik". Nabarmena da taldean zeinek dituen senide gazteagoak eta zeinek ez, eta luze jo du justiziaren gaineko eztabaidak. Sumindu dira neba-arreba gazteagoak dituztenak, eta baretu ditu apurren bat Inesek, etxean gazteena izateak pribilegio batzuk eman izan dizkiola aitortuta. "Bai, ezta? Baietz! Beti da horrela", diotso ondotik lagunak. Taldean badira, baina, bost minuturen aldearekin jaio ziren biki bi ere: Unai eta Uxue. Hara hor hausnarketarako beste gai bat: bikiak. Bost minutu eskas aurretik jaio zenari esan dakioke neba-arrebetan nagusia dela? Neba-arreba biki bi izan daitezke egun ezberdinetakoak? Halakoetan, noren urtegunean egin behar da etxeko ospakizuna?.

Galderak galdera dakar, eta eman du errematea Inesek: "Hamar esateko jaiokak gara". "Hamar. Ez al ziren 11?", galdetu dio gidariak, eskuko atzamarrak zabal-zabal eginda, eskuko hatzekin zenbatzeko baino gehiago denean 11 esaten dela esanez moduan, eta konturatzerako, Euskaltzaindia eta haren arauak ere ekarri dituzte solasaldira. "Eskuetakoak hatzak dira, oinetakoak behatzak". "Eta atzamar "h" gabe da, eta hatzek "h" dauka".

Ideiak harilkatzeko makinak dira haurrak eta ohartzeko jan dute ordubetea ia. Bukatu aurretik, idatzizko ariketa bat proposatu die Magdalenak. Asmatzeko bi neba-arreba eurez gain, erabakitze senide horietan zenbagarrena izan nahi luketen eta abiatzeko Karaktera. Asmatzeko *Makilaxki* ipuinaren trazako bat. Asmatzeko hiru opari magiko eta banatzeko hiruren artean; hartzeko nahi luketena beraienez eta arrazoi-etzeko zergatik. Eta jarri dira idaztera, orri zuria- ren aurrean bertigo handirik sentitzen ez duten itxuran. Irudimena askatu, kontatu nahi dena erabaki, irakurri dituzten edo taldean entzun dituzten ideiak baliagarri zaizkien erabaki, komeni direnak hartu eta besteak baztertu, ideiak ordenatu eta josi. Irakurtzeaz kontrako ariketa da ustez dinamizatzaileak proposatu diena, baina bazioen Harkaitz Cano idazleak irakurtzea eta idaztea gauza berdina direla; irakurtzea bezain lagungarri dela idaztea pentsatzeko eta gure bu-ruak nahiz besteenak ulertzeko. Horixe dute hilean behingo lanketa irakurketa klubetan.



## PERU MAGDALENA

Idazlea eta bitartekari literarioa

✍️ Ainara Argoitia

Peru Magdalena (Berriz, 1980) idazleak gidatzen du haurrentzako Paperezko hegoak irakurketa kluba Elgoibarren, azkeneko bi urtean. Bi talde ditu, eta hileroko elkartzeko dira Gotzon Garate udal liburutegian, aurrez etxean irakurritako liburu baten inguruan adinkideekin hitz egiteko.



*“Plazeretik ekarri behar ditugu umeak literaturara eta horretarako ilusioa transmititu behar diegu”*

**Amets eta jolas egiteko bitarteko bat da liburua, eta hain justu ere horixe ikusi dugu egiten duzuela irakurketa klubean. Zer helburu jartzten dizkiozu zuk?**

Nagusiki bat: umeek gozatu dezatela literatura-rekin eta hurbildu daitezela liburuetara. Ni hainbeste aberastu naute liburuek, nahiko nukeela hazte prozesuan dauden lagun txiki hauek ere izatea horretarako aukera. Gozagarri izango zaizkien eta lagungarri izan dakizkiekeen liburuak jarri nahi ditut haien eskura, genero eta tematika askotarikoak, askotan joera daukagulako ipuinetara mugatzeko, eta bide batez, haurrak sormenerako berezko duten gaitasuna sustatu, horretarako galga izan daitezkeen hesiak eta hormak eraitsita. Iruditzen zait etxean irakurritakoaz taldean berba egiteko aukera emateak on asko egiten digula denoi, eta irakurketa klubek balio dutela lagun berriak egiteko ere. Aurten, gainera, propio saiatu gara horretan. Ibili gara beste herri batzuetako irakurketa klubetako haurrei gutunak idazten eta haiek ezagutzeko aukera ere izango dugu ekainean.

**Literaturaz gozatzeko dinamika ezberdinak egiten dituzue irakurketa klubean. Gaur, ipuina idazten ere aritu dira haurrak. Dena ez da, beraz, irakurteza.**

Ludwig Wittgenstein filosofoak zioenarekin guztiz bat dator. 'Nire hizkuntzaren mugak dira nire munduaren mugak' zioen Wittgensteinek.

Hau da, pertsona batek berba gutxi baldin baditu bere hiztegiaren gutxiago ikusten duela; Eta, jakina, kontrara: zenbat eta hizkuntza zabalagoa eduki, mundua ere halakoxea izango dela beretzat. Eta irakurtzen, berbetan eta idazten ari garenean horixe ari gara lantzen: hizkuntza. Nik garrantzi handia ematen diot idazteari ere. Gainera, hileroko dinamiketan arikeriaz aldatzea ere oso lagungarri izaten zait, batez ere ikusten dudanean talde-tertuliak eman duela berea. Saiola bukatu aurretik, lan horiek guztiak jaso egiten ditut eta ikasturte amaieran liburu bihurtuta eramaten dituzte haurrek beren lanak etxera. Idazten bakarrik ez; aritu izan gara antzerkigintzan eta marrazten ere.

**Zer irizpideren arabera aukeratzen dituzu liburuak?**

Lehenengo saiokoa eta azkenekoa aukeratzea izaten da zailena. Gustatzen zait album ilustratu batekin hastea, ziurtatzen dudalako denek irakurriko dutela. Orea bilatzen saiatzen naiz. Zaintzen ditut autoreak, generoa, estiloak, ilustratzaileak, argitaletxeak, edizio berriak eta klasikoak... Zerrenda luzea daukat osatuta, etengabe berritzen ari naizena, eta hor mugitzen naiz.

**Irakurzaletasuna sustatzeko gurasooi ematen dizkiguten gomendioetan bada beti bat: oso garrantzitsua dela gustuko liburuak lagatzea haurren eskura. Etxekoekin asmatzea ere ez da beti erraza,**

## eta nola egiten duzue talde heterogeneo batentzat ari zaretenean?

Saiatzen gara horretan, baina esango dizut gauza bat: batzuetan *a priori* umeen oso gustukua ez dirudien liburu batek eman dezakeela gero talde-tertulua mamitsu baterako materiala. [Dennis Whelehanek idatzi eta Aitor Aranek euskaratutako] *Aitategia* da adibide bat. Jaime, liburuko haurra, haserre dago aitarekin, ez diolako laguntzen etxeko lanak egiten. Hain dago haserre, aitategira joan eta beste aita bat hartuko duela etxerako, baina aita horrek ez daki kozinatzen. Bukaeran, bistan da, konturaturako da nekez topatuko duela hasierako aita baino hoberik, baina hura mailegatuta dagoenez, ezingo du berreskuratu. Orokorrean umei ez zaie askorik gustatzen liburua, urduri jartzan dituelako aita aldatze horrek, baina ikustekoa da liburu horrek zer joko ematen duen taldean. Horrexegatik gustatzen zait hainbeste liburu hori, eta baita aitei buruz hitz egiteko bidea ematen duelako ere, ipuinetan gehiago agertzen direlako amak. Haurrek gozatzen dute liburuaz taldean.

Irakurzaletasuna sustatzeko gomendio bat eman beharko banu, esango nizuke bitartekariak -izan gurasoa, liburuzaina, irakaslea edo beste edonor- ilusionatuta egon behar duela, baina bistakoa dirudien hori askotan ez dela gertatzen. 'Gure semeak ez du irakurtzen!', esango dizute gurasoek, baina eurek irakurtzen duten galdetuz gero, 'guk ez daukagu denborarik' erantzungo dizute. Berdin irakasleek. Plazeretik erakarri behar ditugu umeak literaturara eta horretarako ilusioa transmititu behar diegu. Beste gomendio bat izango litzateke emateko estilo ezberdinetako liburuak eta beldurrik gabe uzteko irakurri nahi duten hori irakurtzen, nahiz eta guri ez iruditu euren adinerakoa denik edo geuri ez gehiegi gustatu.

## Irakurketa klubetakoak Zarautzen elkartzekoak zarete ekainaren 1ean. Azaldu iezaguzu ekimena.

Irakurketa klubak dinamizatzen dihardugun batzuek ikusten genuen

nor berera ari ginela, oso atomizatuta, eta behar genuela batu eta sindikalizatu. Eta gu batu ginen modu berean, iruditu zitzaigun polita izan zitekeela irakurketa klubetako umeak batzeko bidea egitea, eskolaz kanpoko beste jarduera batzuetan egiten duten moduan. Ekainaren 1ean batuko gara Zarautzen, eta egun eder bat pasatu dugu elkarrekin. Lotuta dugu dagoeneko egun horretarako kultur programa. Era berean, baina, iruditu zitzaigun polita izan zitekeela ekainaren 1a aurretik umeak elkar ezagutzen hasteko bidea egitea. Hala, ekimen honetarako izena eman zuten umeak gurutzatu genituen ausaz eta egokitu zitzaizkien lagunei eskutitz bana idazteko eskatu genien. Gutunak gurutzatzen ari dira orain umeak eta ekainaren 1ean izango dute aurrez aurre elkar ezagutzeko aukera. Ez dakit zenbat lagun elkartuko garen, baina asko izango gara.

## Irakurtzeak eta irakurritakoaz taldean berba egiteak zer on egiten digun azaldu dugu, baina zuri zer on egin dizu bitartekari literario izateak?

Hasteko, oso dibertigarria da niretzat hau dena. Hunkitu ere egiten naiz umei entzuten. Erabat inspiratzaile ere bada niretzat haurrekin lan egitea, idazle eta sortzaile naizen aldetik. Irakurritakoekin, haiei entzundakoekin eta haien emariak nigan sortzen duenarekin bor-bor jartzen zait irudimena. Mundu hau, orokorrean, nahiko prekariora da eta sekula ez dakigu zenbat iraungo dugun, baina laino zoriontsu baten nabilen irudipena daukat.



Peru Magdalena, gaztetxoagoen taldeko batzuekin.

# AIREAN DANTZAN

✍ Ainhoa Andonegi

**Negulekuetan hasi zen guztia, orain dela bost bat urte. June Langara eta Ilargi Galeano elgoibartarrak LH4. mailan zeuden, eta Ondarroako zirko tailerrean eman zuten izena. Oihalekin akrobaziak, malabareak, soka ariketak eta bestelakoak egin zituzten eta egun horiek pasata, zirko munduan sakondu nahi zutela erabaki zuten. Ezagun baten bitartez, Eskoriatzako Airean eskolaren berri izan zuten, baina itxarote-zerrenda zegoen. Junek lortu zuen lehenengo han sartzea eta urtebete geroago sartu zen Ilargi. Aire akrobatak dira biak, eta airean dantzan gozaten dute.**

**A**ire akrobatak dira June Langara eta Ilargi Galeano (Elgoibar, 2010). Orain dela bost urte hasi ziren zirko tailerrean parte hartzen, eta ordutik sokatik zintzilik bizi dira. Ondarroako negulekuetan hasi zuten ibilbidea, baina ez ziren han ase, eta barruan piztu zitzairen harrari jaten emateko, eskolaren baten bila hasi ziren. Ezagun baten bidez Eskoriatzako Airean akrobazia elkartera iritsi ziren. "Eskola serioagoa da, teknika asko lantzen da, eta jende heldua ere badabil han", azaldu du Junek. Talde txikitik ematen dituzte eskolak, eta hasieran itxaron zerrendan jarri zituzten. "Ni nahiko azkar sartu nintzen, eta urtebetera lortu zuen sartzea Ilargik". Astean behin joaten dira saioetara eta ordu eta erdiko eskolak jasotzen dituzte.

Gure Zirkua zirkoko kide izandako Agurtzane Telleria dute irakasle. Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Arrasaten ematen ditu eskolak, eta Soraluzeko kiroldegian dituzte ohialak, beraien kabuz entrenatzeko: "Edonori ez diote lagatzen han ibiltzen, baina gu eskolako kideak garenez, joan gaitezke. Gure oihalak ere baditugu, eta ahal dugun guztietan entrenatzen gara". Entrenamendu saioetan 3-4 metroko alturan ibiltzen dira, baina jende aurreko emanaldietan zaz-



**Astean behin joaten dira akrobazia eskoletara, eta ordu eta erdiko saioak egiten dituzte**

pi metrora ino i g o t z e n d i r a . H a n g o i t i k m u n d u a d e s b e r d i n i k u s t e n d e l a d i o t e : " P o l i t a i k u s t e n d a d e n a ! J e n d e g u z t i a g u r i b e g i r a , i r r i b a r r e z e t a h a r r i t u t a . . . P o z h a n d i a e m a t e n d u " , a z a l d u d u I l a r g i k . E z d i o t e a l t u e r a r i b e l d u r r i k , e t a h o r r e n s e k r e t u a e r e k o n t a t u d u t e : " U m e t a n h a s i g i n e n , e t a g a u z a g u z t i a k b e z a l a , h a u e r e u m e t a t i k h a s i t a h o b e t o i k a s t e n d a . U m e t a n e z g e n u e k a n b e l d u r r i k , h a s i e r a t i k h a s i g i n e n t x i r i b u e l t a k e m a t e n , e t a o r a i n t e k n i k a h o b e t u d u g u n e z , o n d o m o l d a t z e n g a r a a l t u r a n " . T a l d e k o g a z t e e n a k d i r a , b a i n a b e t e r a n o t z a t d u t e e u r e n b u r u a : " E s k o l a n u m e e n , n e r a b e e n e t a h e l d u e n t a l d e a k d a u d e , e t a g u h e l d u e n t a l d e a n g a u d e . G a z t e e n a k i z a n a r r e n , e s k o l a k o b e t e r a n o a k g a r a , a s p a l d i h a s i g i n e l a k o k l a s e a k j a s o t z e n . I r a k a s l e a k p o s t u r a b e r r i r e n b a t e r a k u s t e n d u e n e a n b e t i i z a t e n g a r a l e h e n a k p r o b a t z e n " .



**Bakoitzak bere espezialitatea dauka:  
Junek uztaiarekin  
egiten ditu akrobaziak  
eta Ilargik sokarekin**

Ez da oso kirol ohikoa, baina probatu zutenetik soketara kateatuta geratu dira. "Iaz nik futbol entrenamendua edukitzen nuen akrobaziaren egun berean", azaldu du Ilargik, "baina entrenamendutik 5-10 minutu lehenago irteten nintzen, soka-eskolara joateko. Niretzako ia asteko momenturik onena izaten da. Batzuetan galdetu izan didate ea kostatzen zaidan akrobazietara joatea, baina niri kostatzen zaidana etxera itzultzea da". Junek ere gauza bera esan du: "Ordu eta erdiko eskolak izaten dira, eta berehala pasatzen da. Hain egoten gara gustura... posturak egiten hasi eta berotzen garenean hasten gara

gozatzen, eta konturatzeko itzultzeko ordua izaten da".

Biek aireko akrobaziak egiten dituzte, baina bakoitzak bere espezialitatea dauka: Junek uztaiarekin egiten ditu akrobaziak eta Ilargik sokarekin. "Irakaslea ikusi nuen uztaiarekin akrobaziak egiten eta oso dotorea iruditu zitzaidan. Probatu nuen, eta gustatu zitzaidanez, horrekin jarraitu nuen", azaldu du Junek. Gorputza uztaiari egokitu behar zaiola azaldu du: "Uztaia gogorra da, eta norbera egokitu behar izaten da uztaira. Posturak ez badira ondo zaintzen min hartu daiteke". Ilargik, berriz, sokarekin gozatzen du: "Soka babestuta egoten da, bestela azala erre dezake, baina hala ere, kontuz ibili behar da. Indarra behar da soka gora igotzeko".

Biak ala biak oso kirolariak izan dira umetatik: "Umetatik gara lagunak eta kirol asko egin izan dugu gurasoekin. Mendira sarri joaten gara eta eskalatzen ere ibiltzen gara". Horrek guztiak lagundu die gorputza zailtzen, eta haien izaerak ere izan du zerikusia guzti honetan: "Batez ere Ilargi tximino samarra izan da umetatik; ez zen geratzen", esan du Junek barrez. Oreak, indarra eta malgutasuna garrantzitsuak dira kirol honetan, baina Ilargiren ustez, burua hotz mantentzea eta norberarengan konfiantza edukitzea ere ezinbestekoak dira: "Buruari esan behar diozu baietz, egin dezakezula eta ondo egingo duzula, bestela ez zaizu ondo ateratzen".



*June Langara zutik eta Ilargi Galeano buruz behera.*



## JENDAURREAN DEBUTA

Lau hormen artean egin zuten jendaurreko debuta, pandemia betean tokatu zitzaielako emanaldia. Maskara atzean ezkutatuta zegoen publikoa, denak etxeokak, baina hala ere oroitzen onak dute: "Urduri jarri ginen, baina oso emozionantea izan zen". Horrez gain, jendaurreko beste pare bat emanaldi egin dituzte Eskoriaztan: Bakoitzak bere espezialitatean egin zuen ariketa bat, eta beste koreografia bat elkarrekin prestatu zuten. *Shallow* abestia aukeratu zuten horretarako, eta sorpresa eman zieten etxekoei: "Ilargiren amari eta nire izebari asko gustatzen zaien abestia da, eta horrekin prestatu genuen akrobazia. Oso polita izan zen, eta asko gustatu zitzaizkien".

Ilargik, bestalde, emanaldi inprobisatu bat emateko aukera izan zuen Elgoibarren bertan. Erdi Aroko azoka antolatu zutenean, aireko akrobaziak egiten zituen neska bat etorri zen. Gerturatu zitzaion Ilargiren ama eta azaldu zion alabak ere egiten zituela horrelakoak. Probatzeko aukera eman zion eguerdi batean hark, eta





## Iker Galartzaren Gure Zirkuan parte hartzea dute amets. Horrez gain, Elgoibarren akrobazia tailerrak ematea ere gustatuko litzaieke

iluntzeko emanaldirako gonbidatu zuen: "Izugarrria izan zen, oso-oso polita. Giza Eskubideen parkeko arkuaren aurrean izan zen, ilunetan, suarekin argizatuta... Jende askok ez zekien nik horrelakoak egiten nituenik, eta konturatu zirenean ni nintzela, harritu egin ziren. Hunki-garria izan zen eta jende askok zoriondu ninduen". Jende ezagunaren aurrean irtetea erronka izan zen Ilargirentzat, baina aldi berean, kirol modalitatea erakusteko baliagarria: "Kirol hau ez da oso ezaguna, eta aukera ona izan zen elgoibartarrei erakusteko". Institutuan ere erakustaldiren bat egin izan dute ikaskideen aurrean, oihalak zutabe batetik zintzilikatuta: "Batzuei entzuten genien egiten genuena oso erraza zela, baina horren atzean lan handia dago. Posturak lortzea ez da hain erraza".

Etxekoen babes osoa daukate, eta txandaka eramaten dituzte eskolara, baina Junek aitortu du bere amari oraindik ere beldurra ematen diola alaba soketan zintzilik ikusteak: "Nire ama ez da etortzen ni ikustera, ezin nau horrelako altueran zintzilik ikusi, ez da begiratzeko gai". Jakin badakite arrisku handiko kirola egiten dutela, baina segurtasunez aritzen dira beti.

### AMETSA: GURE ZIRKUA

Euskal Herrian gaur gaurkoz zirkurik bada, hori Gure Zirkua da. Ilargik eta Junek ere ikusia dute Gure Zirkua emanaldia, eta han parte hartzea dute amets: "Udako hilabeteetan, oporretan egonda, ilusio handia egingo liguke Gure Zirkuko emanaldiren batean parte hartzeak. Horretarako 18 urte eduki behar dira, baina, eta itxaron egin beharko dugu". Horrez gain, pasioz bizi duten hori besteei erakustea ere gustatuko litzaieke: "Ikasten bezain beste edo gehiago disfrutatzen dut irakasten", azaldu du Ilargik.

Batzuetan, irakaslea eskolak ematera joan ezin denean, June eta Ilargi ibiltzen dira taldekideei posturak erakusten: "Gazteenak garenez, erraz ikasten dugu, eta besteei laguntzen ibiltzen gara". Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate inguruan indarra hartzen ari da kirol hau, eta uste dute Gure Zirkua ere bultzada eman diola. Nahi lukete Elgoibarren akrobazia sustatu ere: "Ondo legoke Elgoibarren akrobazien tailerrak ematea. Seguru gaude ume askok emango luketela izena". Eta animatu dute jendea probatzeraz, bereziki gizonezkoak: "Honetan gabiltzan gehienak emakumezkoak gara eta iruditzen zaigu gizonezkoek ere badutela lekua hemen. Gure Zirkuan badaude aireko akrobata gizonezkoak", esan du Ilargik. Argi dute: "Probatzen duenak ez du damurik izango".



*June Langara eta Ilargi Galeano Eskoriatzako emanaldi batean.*

## Txoteko Ezpata taldeak kontzertua emango du gaur, barikua, Mendaron

**E**streinako diskoa argitaratu zuten joan zen urrian Txoteko Ezpata taldekoek, *Ilunpean jai duzu*, eta gaur Mendaron aurkeztuko dute, San Agustin kulturgunean emango duten kontzertuan. Gararock taldeak antolatu du kontzertua Mendaroko Udalaren laguntzarekin, eta sarrerak salgai daude Morroskillon eta Uztargin, baina gauean, San Agustinen bertan ere eskuratu ahal izango dira, aurrez amaitu ezean behintzat. 22:00etan hasiko da kontzertua.

Onintza Loiola (teklatura), Rafa Furnier (bateria), Mikel Cornejo (ahotsa), Josu Iriondo (baxua) eta Asier Etxaniz (gitarra eta koruak) dira Txoteko Ezpata, aurrez 6Nemen9, C69, Andra-kan, The Brian Valeta Movement edo Maraca Diablo taldeetan ibilitako musikariak, eta hein handi batean, pandemia garaian Maraca Diablorekin diskoa grabatu eta ondoren plaza batzuk egiteko aukera izan zutenean piztu zuen haiengan proiektu honi ekiteko barruan zuten harra.



Pop-rocka egiten dute, bestelako abizenik jarri gabe sortzen dutenari, eta gaur, diskoko hamabi kantuak aurkezteaz gainera, abesti berriak ere joko dituztela aurreratu du Josu Iriondo taldekideak, bai eta berezia izango dela ere gaurkoa taldekide guztientzat, etxeko jendearen aurrean ariko direlako.

### Gelatik plazara sariketan kantatuko dute gure bertsolari gazteek, etzi



Bertso eskolen eguna ospatuko dute domekan Alegin, eta egun horren baitan Gelatik plazara sariketa ere egingo dute. LHko ikasleek finala jokatuko dute egun horretan, eta DBHkoentzat kanporaketa izango da, apirilaren 4an izango baitute haiek finala, Azpeitian. LHkoen artean, Elgoibarko bertso eskolako taldetxo batek parte hartuko du, eta DBHkoen artean, Mendaroko eta Elgoibarko bertso eskoletako beste talde banak.

### Hileko azken zapatuko feria egingo dute Elgoibarren bihar, martxoaren 29an



Debemenek eta Elgoibarko Udalak antolatuta, hileko azken zapatuko feria egingo dute bihar, Elgoibarren. 09:00etatik aurrera Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai Kalebarren plazan. 11:00etan, berriz, txosna zabalduko dute Atabal tanborrada elkarteok, eta 12:00etatik aurrera umeentzako tailerrak egingo dituzte Kalebarrenen. Eguerditik aurrera, ganadu feria ere egingo da.

## 'Euskararen osasuna Osakidetzan' izenburuko solasaldia egingo dute Elgoibarren apirilaren 1ean

**E**uskararen osasuna Osakidetzan izenburuko solasaldia antolatu dute Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarra elkarteak apirilaren 1erako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian izango da solasaldia, 18:30etik aurrera eta Ana Bereziartua Elgoibarko anbulatorioko erizainak eta Debarrenako ESIn Euskararen normalkuntzarako teknikari den Garbiñe Garaik parte hartuko dute. Antolatzailleen esanetan, besteak beste, honako gai hauek aletuko dituzte: Osakidetzako euskara plana, Mendaroko ospitaleko eta Elgoibarko anbulatorioko egoera, orain arte izandako lorpenak eta hobetu



beharrekoak, euskara plana errealitatean gauzatzeko dauden oztopoak eta euskarazko zerbitzua jaso nahi duten herritarrek bizi dituzten trabak.

### Eñaut Izagirrek gidatutako 'Glaziarrak agurtzen' dokumentala, Primeran-en



Glaziarrak Babesteko Nazioarteko Urtea da 2025a eta Glaziarren Nazioarteko Eguna izendatu dute Nazio Batuen Erakundeak martxoaren 21. Eta hain justu ere, egun horretan estreinatu zuten Primeran plataforman *Glaziarrak agurtzen* dokumentala, Eñaut Izagirrek gidatutakoa. Piriniotako azken glaziarren egoera zein den azaltzen dute bertan teknologiarik modernoek erabilita, bai eta izan duten bilakaera ere. Lau ataletan eman dute, eta Piriniotako lau menditako glaziar ikonikoak ezagutu ahal ditugu bertan: Infiernos, Vignemale, Aneto eta Monte Perdido. Aurkezle eta gidari lanak egin ditu Izagirrek, eta bera izan da dokumentalaren irizpide zientifikoaren jagole ere. Hala ere, Izagirrez gain, Elgoibarko Txitxibildiak taldeko lau emakume ere ageri dira lehenengo ataletan: Izaskun eta Mari Jose Estibaritz ahizpak, Rosa Mata eta Maritere Arakistain.

### Erraldoi txikien erakusketa ikusteko aukera izango da Mendaron bihar eta etzi

Joan zen astean zabaldu zuten Mendaroko Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak Gorka Alonsoren eta Idoia Ortegaren bildumako erraldoi txikiekin osatutako erakusketa, Jubilatuen ondoko lokalean, baina bihar eta etzi ere egongo da bisitatzeko aukera. Guztira 333 erraldoi jarriko dituzte ikusgai; berriena, orain gutxi eskuratu duten Urrezko Erregearen figura. Ordutegia honakoa da: goizez, 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara. Elgoibarren birritan erakutsi dute euren bilduma Alonsok eta Ortegak, azkenengo abenduan.

### Jose Mari Esparzak Zumalakarregiz emandako hitzaldia, bideoan

*Zumalacárregui y la República de los Pirineos* liburua aurkeztu zuen atzo Jose Mari Esparza Zabalegi idazle, editore eta Altafalla kultur elkartearen sortzaileak (Tafalla, 1951) Elgoibarren, eta hitzaldia bideoan ikusi ahal izango duzue aurki *barren.eus* webgunean. Illunberri Achademiak eta Elgoibarko Izarrak antolatu zuten hitzaldia, Udalaren laguntzarekin. 1834an Tomas Zumalakarregik lau euskal probintzietan Errepublikak Federal independente bat aldarrikatu zuela aipatzen duten dokumentuak dira liburu honen haria.

## Seme-alabei sakelako telefonoak ematea atzeratzeko tailerra egingo dute gaur Elgoibarren

Familiak indartzeko eta ahalduzko tailerra da funtsean Amatau Mobila Elgoibarko Udalaren laguntzarekin gaurko antolatua duena (Aita Agirreko areto nagusian, 18:30ean). Seme-alabak eskean hasitakoan, telefonoa erostea atzeratzeko argudioak falta izaten zaizkie sarri gurasoei, eta presioa sentitzen dute bi aldeek. Gazteek, orokorrean, nahi izaten dute gailua eta lagunak telefonoa eskuratzeko hasi ahala, behar handiagoa sentitzen dute; are, antsietate-puntu batekin ere bizi dute zenbaitek. Gurasoek ere sentitzen dute presioa, eta ez dute beti asmatzen olatu horren kontra egiten.

Eta hain justu ere, horretarako antolatu dute *Ba al dut argudiorik nire seme-alabek mugikorra ondo erabiltzeko?* tailerra, egoera horretan daudenak ahalduzko, gurasoak argudiotan janzteko. Tailer hutsa baino gehiago izango da, baina, gaurkoa. Amatau Mobila taldekoek egingo dute aurkezpena. Taldearen helburuak, emandako pausoak eta egin asmo dituztenak azalduko dituzte, eta ondoren umorezko barrizketa bat izango dela aurreratu dute antolatzaileek eurek. Sakelako telefonoen gaiak, askotan, iritzi kontrajarriak ateratzen ditu eta



joera izaten dugu elkar epaitzen hastekoa. Bada, horixe landuko dute elkarrizketan, umoretik. Ondoren, parte-hartzaileak talde txikitan banatuko dituzte eta gurasoen arteko elkarrizketa sustatuko dute, talde-kohesioa lortzeko. Bizipenak, zalantzak eta kezkek partekatuko dituzte, inor ez epaitzeko konpromisoa hartuta. Talde txikitan landutakoa talde handian partekatuko dute gero eta ondorioak ere aterako dituzte. Saioa mokadu batekin itxiko dute. Ordu t'erdi edo bi ordu bueltako iraupena izango du.

### Laburbira zirkuitoko filmak emango dituzte Elgoibarren, apirilaren 2an

Laburbirak, euskarazko film laburren zirkuitu ibiltariak, zortzi film laburrekin osatutako bilduma emango du aurten, eta joan zen domekan Mendaron proiektatu ondoren, apirilaren 2an Elgoibarren emango dituzte. Denetarik lanak daude aukeratuen artean, eduki zein estiloz, eta horietako asko, gainera, zine jaialdietan saritutakoak dira. Besteak beste, Goya sarietarako hautatutako Ekain Irigoienek *Europan* eta Eneko Sagardoyren *Betiko Gaua*, Alaia Martin bertsolariak, Karmele Mitxelena eta Iraitz Mateorekin batera zuzendutako *Pentsatzen dut*, Itziar Ituño protagonista duen *Proso-pagnosia* edo *Utlandsk* Huezinema jaialdiko lan irabazlea daude. Emango dituzten film laburren



artean dago, baita ere, Jone Arriola elgoibartarraren *Hor konpon*. Herriko Antzokian izango da proiektzioa, 21:00etan hasita.

## Queen gaua errepikatuko du Elgoibarko Udal Musika Bandak, Mendaron

**D**uela bi urte ekainaren 9an Elgoibarren eman zuten Queen taldeari eskainitako kontzertuaren parekoa emango du Elgoibarko Udal Bandak maiatzaren 9an (barikua), Mendaron, Herriko Enparantzan (22:00). Ez dira bakarrik arituko bandakoak, baina. Elgoibarren izan zituzten lagun berbebak izango dituzte ohol-tzan: Jon Gurrutxaga abeslaria Freddie Mercury-ren paperean, Patxi Zabaleta gitarrista eta Andoni Mujika baxu jotzailea. Mesa 7 taldeak antolatu du kontzertua, Mendaroko Udalaren, Gararock taldearen, Uztargi tabernakoen eta Galle-Tiak gozotegikoek laguntzarekin.



Espero zitekeen moduan, arrakastatsua izan zen oso Elgoibarko Udal Musika Bandak 2023an Elgoibarren eman zuten kontzertua, eta beste horrenbeste izatea espero dute Mendaron, Queenen kantu ezagunak etxeko musikariek interpretatzea beti delako amu ona. Kontzertu haren ondotik, Deban eta Labastidan ere eman zuten kontzertua, baina hango bandekin.

### 'Mercurio' film laburra proiektatuko dute Elgoibarko Jubilatuen Biltokian apirilaren 2an

Sebastian Peslek zuzendutako *Mercurio* film laburra proiektatuko dute Elgoibarko Jubilatuen Biltokian apirilaren 2an, 19:30ean. Bi eletan da filma, eta gaztelaniazko azpiztituluekin emango dute. Filma ikusi ondoren mokadua ere izango dela aurreratu dute antolatzaileek. Era berean, jakinarazi dute egun horretan ezingo dela 16 urtez azpikorik joan filma ikustera, adinez nagusi direnentzako filma delako.

### Athleticek Gabarra atera zuen eguneko argazkien erakusketa, Elgoibarren



Espainiako Errege kopa irabazi eta Athleticek gabarra ibairatu zuen eguneko argazkiekin erakusketa osatu du Manu Sanchez elgoibartarrak eta apirilaren 4an zabalduko du, Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa-gelan. Apirilaren 15era arte egongo da bisitatzeko aukera astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era. Areetako kaitik irten eta Bilboko udaletxera arteko bidea egin zuen gabarran joan zen apirilaren 11n Athleticeko jokalaria, entretzaile eta gainerakoak, eta egun horretan Bilbon sortu zen giroa eta pilatu zen jendetza erretratatu zuen Sanchezek, airetik, abioneta bat gidatuz jarraitu baitzuen Gabarraren bidea. 8.500 argazkitik gora atera zituen.



## Unai Zabalok txirrindularitza egokituko Espainiako Kopako proba bat irabazi du Murtzian

**T**xirrindularitza egokituko Espainiako Kopako hirugarren eta laugarren proba puntuagarriak jokatu zituzten joan zen as- teburuan, Murtziako Ceuti herrian, eta bi probetan igo zen podiumera Unai Zabalo Murillo. Erlojuaren kontrako proba joku- tu zuten zapatuan 17,5 kilometroko ibilbidean, eta bere katego- riakoen artean hirugarren egin zuen 29:13ko denborarekin. Julio Bermejo izan zen azkarrena (28:32) eta Pedro Sanchez-Migallon sailkatu zen bigarren postuan (28:34).

Desgaitasunaren arabera kategoria ezberdinak daude eta Unai Zabalori MC4 kategoria dagokio. Domekan jokatu zuten lineako lasterketan, erlojuaren aurka nabarmendu ziren hiru txirrin- dulariak izan ziren protagonistak berriro ere, MC4 kategorian. Ceuti herri barrutik eta inguruetatik igarotzen zen hiru kilome- troko zirkuituari 11 itzuli eman ostean, hirurak ihes eginda aile- gatu ziren helmugara. Zabalo izan zen azkarrena esprintean eta Sanchez-Migallon eta Bermejo sartu ziren haren atzetik. Zabalok estreinakoz korritu du talde berria duenarekin, Neuroimpulse-Ga- licia taldearekin (C.C. Riazor), eta ezin hobeto hasi du ibilbide berria. Eskerrak eman dizkio Galiziako taldeari elkarrekin hazteko aukera emateagatik, eta prestakuntzarekin lagundu dion Zurekin zentroa ere gogoan izan du, denboraldia prestatzeko egin duten lanagatik. Era berean, etxekoei eta lagunei ere eman dizkie es- kerrak, "beti ondoan egoteagatik". Denboraldia "ilusio eta anbizio handiarekin" hasi du.



## Zilarrezko domina bat eta brontzezko bi irabazi ditu Paula Calvo igerilariak junior mailako Espainiako Txapelketan

Junior mailako igerilariarentzako Espainiako Ige- riketa Txapelketa jokatu zuten Sabadelleko Can Llong igerileku olinpikoan, eta hiru domina irabaz- teaz gainera, Europako Txapelketan parte hartze- ko gutxieneko marka lortzetik gertu ibili zen Paula Calvo Villalobos igerilari algoibartarra. Bizkar es- tiloko 200 metroko proban, Espainiako txapeldu- norde geratu zen, 02:18.89ko denborarekin. Sara Costa De Vicente gailendu zen (02:11.70). Proba horretan uztailen Eslovakian jokatzekoak diren Europako Txapelketan parte hartzeko gutxieneko marka (02:17) lortu nahi zuen Eibar Igerixan tal- deko kideak, aurrez igerian egin delako denbo- ra horretan, baina ez zuen helburua gauzaterik lortu. Gutxieneko marka hori lortzeko beste au- kera bat izango du ekainean Mallorcan jokatuko duten Espainiako Igeriketa Txapelketa absolutuan.



Gainera, lortuz gero, Espainiako selekzioarekin prestatuko luke Europako Txapelketa. Sabadellen bizkar estiloko 100 metroko eta 400 metro esti- loetako finaletarako ere sailkatu zen eta hiruga- rren postua lortu zuen bi finalotan: 100 metrokoan (01:04.70) eta 400 metrokoan (05.01.86).

## Ibon Baskaran Frantziako snowboard txapelkunordea izan da, benjaminetan

Frantziako lizentziarekin lehiatzen ari da Ibon Baskaran Beristain (Elgoibar, 2012) snowboarder elgoibartarra, eta hala, Frantziako snowboard txapelketan parte hartzeko aukera izan du. Les Carroz D'Archesen jokatu zuten txapelketa joan den asteburuan. Baskaranez zilarrezko domina eskuratu zuen Kros modalitatean (snowboardcross), gogokoen duen modalitatean. Finalera kanporaketetako denborarik onenarekin sailkatu zen eta urrea ere eskura izan zuen arren, lorpen handia da zilarra, maila handiko kirolariak izan baitzituen aurkari.

Luz Saint Sauverreko Skitoy taldean dago Baskaran, eta oso gaztea den arren, lehen txapelketatik hasi zen nabarmentzen. Pirinioetan eta Alpeetan jokatu dituen hainbat proba irabazi ditu azken urteetan eta aurtengo denboraldian ere emaitza apartak lortzen ari da. Azken bi asteak Alpeetan eman ditu eta laugarren postua lortu zuen Kids National Tour txapelketarako puntuagarria zen proban, kros modalitatean. La Plagneko eski estazioan lehiatu ziren Frantziako snowboarder gazte onenak eta Frantziako Pirinioetako ordezkaria izan zen Baskaran. Lehena hirugarren postu bat ere lortu zuen txapelketa horretan.



## Gorka Etxaniz azkoitiarrak irabazi du Aiastiako bola-jokoa



Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketaren bigarren jardunaldia jokatu zuten zapatuan Aiastiako bolatokian, eta Floreaga taldeko Gorka Etxaniz izan zen irabazlea. Bolari azkoitiarrak zortzi txirlo bota zituen hiru jaurtaldietan, San Andres taldeko Oier Azurmendik lortu zuen marka berbera, baina Etxanizentzat izan zen garaipena. Asola Berriko Sergio Rodriguez sailkatu zen hirugarren postuan, sei txirlo botata. Lehen bi jardunaldiak jokatu ostean, Oier Azurmendi dago sailkapen nagusiko lehen postuan, 11 punturekin. Javier Osoro elgoibartarra dago bigarren, Soraluzen lortutako garaipenari esker, bederatzita punturekin. Taldeka San Migel A taldea dago lider, 27 punturekin, Asola Berri A taldeak baino bi gehiagorekin.

## 115 umek parte hartu dute Mendaron egin duten herri-kirol topaketan



**H**erri-kirol topaketa egin zuten zapatuan Mendaron, eta Soraluzeko, Debako, Mutrikuko eta Mendaro bertako LH3tik LH6ra arteko 115 eskola-umek hartu zuten parte. Hala ere, txikiagoek ere izan zuten herri-kirol ezberdinak probatzeko aukera, Mendaroko Arno guraso elkartearen ekimenez. Frontoian aritu ziren lokotx batzen, zakua eramaten eta giza-probetan; udaletxeko ata-

rian jarri zuten ingudea, eta Herriko Enparantzako etxeepetan aritu ziren txikiak, modalitate ezberdinetan. Herri-kirol federazioko lagunak eta Mutrikuko sokatira taldekoak ere aritu ziren umeei laguntzen, eta bukaeran parte hartu zuten umeen kontrako tiraldia ere egin zuten mutrikuarrek. Amaieran parte-hartzaile guztiek ogitarteko eta freskagarri bana jaso zuten, Arnoko kideen eskutik.

---

### Eskolarte mailako txirrindularitza lasterketak jokatu dituzte Mendaron

Eskolarte mailako lasterketak jokatu zituzten domekan Mendaroko industrialdean, Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta. Infantiletan Markel Diaz Dorletako Ama taldekoa eta Amaia Agirre Zumaiaiko Txirrindulari Elkartekoa gailendu ziren. Alebinetan Ion Salaberria (Goierri) eta Naikari Oría Peña Elortzakoa izan ziren azkarrenak, baina aipagarria da June Iraolagoitia mendarorarrak lortu zuen bigarren postua. Benjaminean, Egoi Motriko mendarorarra izan zen azkarrena.





## Urko Mendazona eta Joane Unamuno judokak Gipuzkoako txapelkun

Infantil eta kadete mailako Gipuzkoako Judo Txapelketa jokatu zituzten joan zen asteburuan Urrietako Udal Kiroldegian, eta emaitza bikainak eskuratu zituzten BST-Egokran judo taldeko kideek. Urrezko bi domina eta brontzeko bat lortu zituzten judoka elgoibartarrek. Urko Mendazona Labernia infantil mailan lehiatu zen zapatuan, 36 kiloz azpikoen kategorian, eta bera izan zen onena. Joane Unamuno Ramos kadete mailan lehiatu zen domekan jokatu zuten lehian eta berak irabazi zuen Gipuzkoako txapelketa, 70 kiloz azpikoetan. Edith Garate Osoro ere lehiatu zen kadeteetan, 57 kiloz azpiko kategorian, eta hirugarren postua lortu zuen. Hiru judoek lortu dute Euskadiko Judo Txapelketarako sailkatzea. Apirilaren 5ean jokatuko dute infantil eta kade-



te mailako judokentzako Euskadiko Txapelketa, Gasteizko Arriaga kiroldegian.

### Haundi animatzera Oñatira joateko autobusa antolatu du C.D. Elgoibarrek

Gizonezkoen Haundi taldeak Aloña Mendiren aurka jokatuko du, domekan, Oñatin (16:30). Bi taldeak daude jaitsiera postuetan eta berebiziko garrantzia izango du neurketak. Azken jardunaldian Zarautzen aurka bana berdindu eta gero, sailkapeneko 17. postuan dago Haundi, 23 punturekin eta 16. postuan daude oñatiarrak, 24 punturekin. Jaitsiera postuetatik kanpo dagoen lehen taldeak, Mondragon CFk, 28 puntu ditu. Zortzi jardunaldi falta dira liga bukatzeko. Hori dela-eta, Aloña Mendiren aurkako partidarako bazkideentzako eta zaleentzako autobusa antolatu du C.D. Elgoibarrek. Autobusa 15:30ean irten-go da Mintxetatik. Kirol taldeko bazkideek doan bidaiatu ahal izango dute eta bazkide ez direnek 5 euro ordaindu beharko dituzte. Honako telefonon eman behar da izena: 666 267 783.

Puntuak pilatzeko plaza ona zirudien arren, emakumezkoen Haundi taldeak puntu bakarra eskuratu zuen Deban, Ondarbeltz taldearen aurkako partidari. Sailkapeneko potzuan daude debarrak, jokatutako 23 partidetatik bat ez beste



guztiak galdu eta gero, eta, elgoibartarren aurka lortu zuten denboraldiko lehen berdinketa. Husnako emaitzarekin bukatu zen partida. Bost partida falta dira liga bukatzeko eta Haundik lau puntura du jaitsiera postuetatik kanpo dagoen lehen taldea, Irauli Bosteko. Hain zuzen, Irauli Bostekoren aurka jokatuko dute asteburuan Mintxetan. Donostiarrek 21 puntu dituzte eta 17 elgoibartarrek.

**LANA**

**Eskaintzak**

Egur Arte Tailerlean umeei mar-go tailerrak emateko pertsona bat behar dugu. Astelehenetik barikura, arratsaldez. **666 557 538**  
[egurarte@gmail.com](mailto:egurarte@gmail.com)

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, asteburuetan, gauetz...  
**641 756 213**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, asteburuetan, gauetan... Ospitalean gauak pasatzeko ere prest nago. Esperientzia handia eta beharrezkoak diren tituluak ditut.  
**641 692 366**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia dut eta etxeko langile moduan jarduteko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat. **649 044 223**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Titulua daukat, eta erreferentzia onak.

**638 857 100**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan, gauetan, baserrian...

**642 852 854**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxean nahiz ospitalean. Titulu soziosanitarioa daukat eta urte askotako esperientzia.

**660 511 781 / 943 742 330**

Pertsona arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo etxeko langile moduan. Lanean berehala hasiteko prest. **632 708 954**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. **643 505 827**

Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak gizonezkoak zaintzeko.

**614 114 360**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulua ditut.

**643 505 662**

**BESTELAKOAK**

Antonelli markako organo elektronikoa salgai. Vals eta tango soinu-nuen laguntza doinuak ditu. Bestalde, Joxe Migel Barandiaranen obra osoa ere, salgai. 15 tomo dira. **943 752 480**

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Euzkoako Finantza Administrazioaren Kontseilua</p>  <p><b>ROSA M<sup>a</sup> PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <a href="mailto:rosapf@telefonica.net">rosapf@telefonica.net</a></p>	<p><b>Gure komunitatean eraiki zuten tximinia 30 urtez erabili gabe eta mantentze-lanik egin gabe dago. Etxe jabe batek eskatu du aztertzeko, garbitzeko eta baldintzarik onenetan mantentzeko. Jakin nahi nuke ea tximiniaren mantenua egitera behartuta gauden, erabiltzen ez bada ere.</b></p> <p>Komunitate bateko tximiniaren zaintza eta mantenua bizigarritasun baldintzak betetzeari dagozkio. Beraz, komunitatea derrigortuta dago eraikina, honen zerbitzuak eta guztien instalazioak egoera onean mantentzeko lanak eta obrak egitera. Honen baitan leudeke segurtasuna, bizigarritasuna eta irisgarritasuna asebetetzeko lan orokorrak. Baita ere baldintza apaingarriak edo administrazioak mantenuari buruz ezarritako legezko baldintzak. Tximinia, erabili ez arren, kendu ez bada, komunitateak mantendu egin behar du. Hori edozein etxejabek eskatu dezake. Beraz, komunitateak kontserbazio lanak egin beharko ditu etxejaberaren batek eskatuz gero, legez kentzen ez badute behintzat.</p> <p><b>Aholkua: Komunitateak tximinia zerbitzua kendu nahi izango balu, gaia, etxejabeen batzarrean aztertu beharko litzateke eta legezko gehiengoaren bidez adostu.</b></p> <p><b>GOXR</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora,  
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo **688 655 658** bidailita.



Zorionak, **Izaro!**  
Bihar 3 urte!  
Jarraitu beti bezain alai.  
Muxu handi bat, etxekoan partez.



Zorionak, **Intza!**  
Bihar 8 urte handi!  
Segi beti bezain alai, potxolita!  
Patxo handi bat, familiako denon partez.



Zorionak, **Unai**, igandearen urtetxo bat bete zenuelako.  
Patxo handi bat familiakoena, eta bereziki, June-  
ren partez.



Zorionak, **aitabxo**, zure 50. urtebetetzean.  
Urte on askotarako. Enekoren eta etxeko denon partez.



Zorionak, **Lia**, igandearen 4 urte beteko dituzulako. Familiako denon partez.  
Segi horrelako alai izaten.



Zorionak etxeko **printzesari**, asteartean 4 urte beteko dituzulako. Asmo maite zaitugu. Muxu erraldoi bat.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**ELGOKAR**  
AUTO GARBINETAK

Olaso kalea, 15,  
74. pabilioia - Elgoibar

**660 912 542**      [www.elgokar.com](http://www.elgokar.com)

[instagram.com/elgokar.autogarbiketak](https://www.instagram.com/elgokar.autogarbiketak)

*Aste santu aurretik  
ekarri zure autoa,  
autokarabana  
edo camperra gurera  
eta distiratsu utziko dizugu!!*

EXPRESS ESKAINTZAK!

BOSCH WUU28T64ES  
ARROPA-GARBIGAILUA

479 €

- Karga 8 kg
- 1400 b/min
- Speed perfect
- Pausa+Karga funtzioa
- Amaiera geroratu

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

**Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean**

943 743 704  
688 769 657

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

Geldetu  
prezioak  
eta gustura  
erantzun  
dizugu.

## 28 BARIKUA

**18:30** Umorezko bakarrizketa eta tertulia: 'Ba ote dut argudiorik seme-alabek mugikorra ondo erabiltzeko?'. Amatau Mobila eta Udalak antolatuta, Aita Agirre kulturgunean.

**20:00** Elkarretaratzea. Hileko azken ostirala. 'Behin betiko etxera'. Kalegoen plazan.

**22:00** Kontzertua: Txoteko ezpata. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

## 31 ASTELEHENA

**19:15** Talde instrumentalen kontzertuak. Musika Eskolako auditoriumean.

## 1 MARTITZENA

**18:30** Hitzaldia: 'Euskararen osasuna Osakidetzan'. Garbiñe Garai euskararen normalizatorako teknikariak eta Ana Bereziartua Elgoibarko ambulatarioko erizainak emango dute. Aita Agirre kulturgunean.

## 2 EGUAZTENA

**18:30** Hitzaldia: 'Hitz egin dezagun gure zainketaz'. Jubilatuen Biltokian.

**Segidan**, *Mercurio* film laburra. Jubilatuen Biltokian. Amaieran luntxa egingo dute.

## AZKEN ZAPATUKO FERIA

Martxoak 29, zapatua

**09:00** Baserrietako eta Artalde artisau taldekoen produktuak jarriko dituzte salgai. Kalebarren plazan.

**11:00** Txosna zabalduko du Atabal danborrada elkarteak.

**12:00** Umeentzako tailerrak. Kalebarren plazan.

**Eguerditik aurrera**, ganadu erakusketa. Kalebarren plazan.

### Ordu aldaketa, domekan

Asteburu honetan udako ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, martxoaren 30ean, ordubetez aurreratu beharko da ordularia; 02:00etan 03:00ak izango dira.



# GORBEA


**Berria!**

*Eguneko menua ematen hasi gara!*

**15€ + 1€** Menuko kafea

**Zatoz dastatzera!**

 @gorbea.eus

 Santa Ana, 10  943 288 180

Karta, menu itxiak, ezkontzak, urtebetetze festak, hamaiketakoak, catering-a...



**Zinea** Herriko Antzokian**'The monkey'**

28 barikua: 19:00  
 29 zapatua: 19:00 / 22:15  
 30 domeka: 19:00  
 31 astelehena: 21:00

**'Azerik eta Erbik basoa salbatzen dute'**

30 domeka: 16:30

**2025eko botika ordutegiak:**

09:00-13:00 / 16:00-20:00  
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00  
 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

**MARTXOA**

28 BARIKUA	Garitaonandia
29 ZAPATUA	Arriola
30 DOMEKA	Arriola
31 ASTELEHENA	■ Fernandez

**APIRILA**

1 MARTITZENA	Yudego
2 EGUAZTENA	■ Oruesagasti
3 EGUENA	Barrenetxea
4 BARIKUA	■ Soto

## 2025 urte gutzian, gauzez:

Mikel Lekunberri Alberdi. Isasi, 31 (Eibar)  
 943 204 230

■ Fernandez:	■ Soto	■ Oruesagasti:
Herriko	Rekalde, 1	Kalebarren, 9
Enparantza,4	(Soraluze)	(Soraluze)
Garagartza	943 751 638	943 751 384
(Mendaro)		
943 756 142		

**LAN-DEIALDIA**

Udaldirako hezitzaileak behar ditugu

**CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:**  
**Apirilak 13, igandea**

Non eta nola:

- [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) (lan poltsa)
- 943 741 626 / 643 499 169
- [kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus](mailto:kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus)

**ESKATZEN DA:**


- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea.
- Ahozko euskara maila handia izatea.

**BALORATUKO DA:**

- Aisialdian lan-eskarmentua izatea.
- Elgoibarkoa izatea.
- Espezializazio ikastaroak egin izana.
- Haur Hezkuntza eta Hezkuntza Premia Berezieta ikasketak nahiz esperientzia izatea.
- Herrigintzan jardun izana.

**KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:**

- Hautagaiek proba bat egin beharko dute eta hautaketa-sistemaren irizpideen arabera meritua ere baloratuko zaizkie.
- Elkarriketak: apirilak 28-29
- Hautatuek oinarrizko prestakuntzan hartu beharko dute parte: maiatzak 24, 09:30-18:30



2003an desegin zen Mendaroko Kilimon futbol elkarte, baina urte onak ere izan zituen Mendaroko taldeak. Gaur atal honetara ekarri dugun argazkia Anjel Bazterretxearen bildumakoa da, eta argazkia Azepeitian aterata dago, Kilimon futbol taldeak Lagun Onak taldearen kontra jokatu zuen ligako partida batean. Argazkikoek uste dute 1984an ateratako argazkia dela. Ikus ditzagun nortzuk diren argazkiko zale gazteak, ezkerrengotik hasita: Unai Kanalaetxeberria, Antonio Valdes, Igor Esnaola *Sahatsu* (♣) (aurrean, makurtuta), Alfredo Belda (jertse gorria gerrira lotuta duena), Jose Agustin Arakistain *Muxki* (bandera zabal-zabal eginda daukana), Javi Gallego, Ibon Elortza, Abel Uriarte (♣), Pablo Magro *Palichi* eta Jose Antonio Carbajo.

1972an sortu zuten Kilimon taldea eta 1987an Gipuzkoako Preferentera igo zen. Bi urte egin zituen han. 1991ean berriro lortu zuen igotzea, eta beste bi urtez eutsi zioten mailari. 1994an helduen taldea desegin zen, eta 2003an, elkarte.



## Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

Barreneko bulegora ekarri:

**Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.**





**INGENIARITZA  
DUALAREN ESKOLA**  
ESCUELA DE  
INGENIERÍA DUAL

UNIBERTSITATEA



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



## Markel López Vasco

Elgoibartarra. 22 urte.

**Berrikuntzako Ingeniaritza Duala**  
Ikasle ohia

### **Berrikuntzako Ingeniaritza Gradu Duala amaitu berri duzu. Esan ahal diguzu zergatik aukeratu zenuen Elgoibarko Ingeniaritza Dualaren Eskolan ikastea?**

Batxilergo zientifiko-teknologikoko ikaslea nintzela, banekien ingeniaritza ikasi nahi nuela, arloarekiko nuen interesagatik eta eskaintzen dituen lan-aukera onengatik. Hiru arrazoi nagusirengatik aukeratu nuen karrera hau: berrikuntzan nuen interesagatik (soluzio berriak sortu, hobetu edo diseinatu); eredu dualagatik (karrerako bigarren urtetik lan eginez nire laneratzea erraztuko zelako); eta unibertsitatea bizi naizen herrian bertan edukitzearen erosotasunagatik.

### **Nolako esperientzia izan da?**

Positiboa, eta aldi berean, trinkoa. Positiboa, ia hasieratik izan dudalako harremana enpresarekin. Horrek lagundu dit ikasitakoa ulertzen, eta baita ere bizitza errealean ikusten teoria hori praktikan aplikatzen dela eta nola. Bestalde, gogorra izan da, karrera honek dakarren lana eta dedikazioagatik: Hiru egun lanaldi osoan lan egitea eta beste bi egunetan 8 orduz ikastea gogorra da, eta horri gehitu behar zaizkio orduzko horretatik kanpo egunean eraman behar dituzun lan eta proiektu guztiak.

### **Espero zenuena bete al da? Zure espektatibak bete al dira? Zerbait aldatu zen lau urtez ikasten egon ondoren?**

Bai, neurri handi batean. Ikasketa praktikoa espero nuen, eta proiektuen bidez lortu dut hori. Gainera, karrera amaitu aurretik lan esperientzia irabazi dut. Bestalde, karreraren edukietan espezializazio handiagoa espero nuen, baina lau urteren ondoren konturatu naiz ingeniaritza hainbat arlotan arazoak konpontzeko ezagutza teknikoak eta trebetasunak irakasten dizkizun karrera dela, eta benetako espezializazioa lan esperientziarekin batera iristen dela.

### **Lan esperientzia izateko aukera eman dizu Eredu Dualak. Berrikuntza proiektuetan lan egin duzu. Zure ustez, lagungarria izan al da amets profesionalak betetzeko?**

Eredu dualari esker, enpresetan dauden benetako arazoak ikusi ahal izan ditut, baita horiei aurre egin ere, trebetasun teknikoak eta arazoak ebaztekoak garatuz, praktikak bakarrik eskain dezakeen moduan. Beraz, helburu profesionaletara hurbiltzen lagundu dit, ikasketak lan esperientziarekin eta mundu profesionaleko arazoei aurre egiteko prestakuntza hoberekin amaitu baititut.

## Berrikuntza Ingeniaritzako ikasleen bizipenak

### **Zein enpresatan garatu duzu zure profil profesionala? Azaldu ahal dizkiguzu zure Ikerketa Zientifiko Teknikoa eta IZT Gradu Amaierako Lana?**

Goizper S. Coop. enpresan egin dut duala, eta han garatu dut profil profesionala, produktu-ingeniari gisa. Goizperren produktu baten osagai mekaniko nagusien higidura goiztiarraren arazo bati aurre egitea izan zen nire 3. mailako IZTa, zehazki biraketa-mahaletan, horiek abiadura handian biratzen hasten zirenean. Proiektu honetan, arazo honi buruzko artearen egoeraren ikerketa bat egin behar izan nuen, produktuan egon zitezkeen aldaketak edo hobekuntzak planteatzeko. Hobekuntza horiekin gero balioztatzea egiteko, nire kasuan esperimentala, Goizperrek entsegu banku bat baitu produktuak entseatzeko. IZT horri esker, zenbait muga identifikatu ziren osagai mekanikoetako baten diseinu geometrikoan eta produktuaren osagaien zehaztasunean. Hori dela eta, Goizperrek aplikazio azkarretarako biraketa-unitateen familia berri bat garatzea erabaki zuen, merkatuaren abiadura eta zehaztasun eskakizunak gainditzeko. Testuinguru horretan, 4. mailan, nire GRALak jarraipena egin zion IZTri, eta produktuaren analisiari ekin nion, baita familia berriaren tarteko tamainetako baten kalkulari eta diseinuari ere.

### **Atzerriko lan praktika egonaldia ere egin duzu**

Goizper France enpresan izan nintzen ia hiru hilabetez, bezero frantziarren eskaerak garatzen eta diseinatzen, eta arazo teknikoak konpontzen. Egonaldiak lagundu zidan profil profesionaleko gaitasun batzuk hobetzen, lanerako autonomia handiagoa hartzen eta lankide teknikari komertzialen profila ulertzen. Maila pertsonalean Frantziako desberdintasun kulturaletara egokitu nintzen, eta ingelesezko komunikazioa landu nuen.

### **Gradu hau ikastera nor animatuko zenuke?**

Ingeniaritzaren alorrean interesa duten mutil zein neska animatuko nituzke; prestakuntza praktikoa nahi dutenak eta laneratze ona ziurtatzeko beren lanarekin konprometituta daudenak.

## Gehiago jakin nahi?

**Zatoz apirilaren 5eko  
ateak irekitzeko ekitaldira**




# Antxustegi

Zure ametsak sukaldatzen!



[www.antxustegi.com](http://www.antxustegi.com)



Antxustegin behar duzun dena topatuko duzu. Ez eman buelta gehiagorik; zatoz eta ezagutu gure sukalde aukera zabala!



ZERABIKIA  
ETA HARRIA



LURZORU  
LAMINATUA



MARGOTUTAKO  
PIRERA



BANUGELA



BURDINOEGIA



ERAKUNTZARAKO  
MATERIALAK



SUKALDEAK

Olaso Olasope, 5, industriagunea- 20870 Elgoibar - 943 743 344 / 943 740 692